

GIZONTXO IRUZURGILE ZIZTRINA¹

Zakeo hanka-puntetan zegoen, zuhaitz baten adarri heldu nahian. Juxtu-juxtu iristen zen, gizontxo txikia baitzen. Gora egiten hasi zen...

Jesus ikusi nahi zuen. Baina jende gehiegi zegoen. Bera baino garaiagoak ziren denak, eta Zakeok ezin zuen ezer ikusi haien atzetik. Horregatik, pentsatu zuen:

- Zuhaitzean gora egin eta bertatik ikusiko dut Jesus.

Jesus paretik pasatu zen eta Zakeok hari begiratu zion.

Eta bere harridurarako, Jesus parean gelditu zitzaion. Eta Zakeori begiratu zion, irribarretsu, esanez:

- Jaitsi zuhaitz horretatik. Zure etxera joan nahi dut. Lagun-minak balira bezala hitz egin zion.

Zakeo hunkituta zegoen. Aberatsa zen, baina inork ere ez zuen bere adiskide izan nahi. Zakeo zerga-biltzailea zen eta baita iruzurgile ere. Zerga altuegiak ordainarazten zizkion jendeari.

- Nola joango da, ba Jesus, gizon horren etxera?, zioten guztiek. Zakeo gizontxo iruzurgile eta ziztrina baizik ez da.

Baina Zakeok iruzur egiteari uko egin nahi zion. Izan ere, orain Jesus adiskide zuen eta honek ez zuen holakorik gustuko.

- Nire diruaren erdia behartsuei emango diet, esan zion Zakeok Jesusi egun hartan. Eta iruzur egin diedanei, lapurtu diedana halako lau itzuliko diet.
- Zure moduko jendea da nik salbatu nahi dudana, Jainkoarengana eraman nahi dudana, esan zion Jesusek.

Oso pozik zegoen.

¹ **Alexander, P.** "Zure lehen Biblia". Giltza, 2004, 414-417 or.